

III. ASTEKLIMA SARIAK (2026)

Euskadin ekintza klimatikoko eta trantsizio energetikoko ekimen onenei egindako aintzatespena

1. AURREKARIAK

Klima aldaketa gizarte garen heinean aurre egin behar diogun erronka handienetako bat da gaur egun. Ondorioak agerikoak dira dagoeneko, eta, IPCCren seigarren txostenak (2023) adierazten duen bezala, azkartzen eta areagotzen ari dira, oro har.

Ebidentzia zientifikoa argia da: klima aldaketa giza jarduerak eragindako berotegi efektuko gasen (BEG) metaketaren ondorioa da, batez ere erregai fosilen erabileraren eta basogabetzearen ondoriozkoa. Gainera, krisi ekologiko zabalago baten parte da, biodibertsitateari eta gure bizitza haien menpe duten sistema naturalei ere eragiten diena.

Erronka horri aurre egiteko, premiaz eta anbizioz jokatu behar da arlo guztietan, baina baita modu bidezko eta inklusiboan ere, ekintza klimatikoa garapen ekonomikoarekin, enplegua sortzearekin eta kohesio sozialarekin uztartuz.

Testuinguru horretan, erakunde publikoek funtsezko zeregina dute. 2019ko uztaillean, Euskadik bat egin zuen larrialdi klimatikoaren adierazpenarekin, eta karbonoan neutroa eta erresilienteagoa den gizarte baterantz aurrera egiteko politika publikoak azkartzeko konpromisoa hartu zuen. Konpromiso hori indartu egin da Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legea onartuta, 2050ean neutraltasun klimatikoa lortzeko esparrua ezartzen duena.

Eskualdeak eta toki erakundeak, herritarrekin eta sare sozioekonomikoarekin batera, funtsezko eragileak dira eraldaketa horretan. Eta biztanleekiko hurbilak direnez, parte hartzea errazten duten, ohitura aldaketa sustatzen duten eta ekintza klimatiko eraginkorragoa ahalbidetzen duten ekimenak bultzatzen dituzte.

Europar, Energia Jasangarriaren Europako Asteak eta pareko ekimenek horrelako ekintzei balioa ematen diete. Horretarako, trantsizio energetikoa bultzatzen duten proiektuak aintzatesten dituzte, eta eragile berrien inplikazioa sustatzen dute, batez ere gazteen artean.

Euskadin, eta ikuspegi horrekin bat etorritik, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) eta Ihoberen laguntzarekin, ASTEKLIMA bultzatzen du, klimaren eta energiaren astea, herritarren topagune, ekintza eta mobilizazio gune gisa.

2026ko edizioan, urriaren 16tik 25era bitartean, klima aldaketari aurre egiteko herritarrek aktibatzen laguntzen ari diren ekimenak aintzatesten eta bultzatzen jarraitu nahi du ASTEKLIMAK.

Esparru horretan, oinarri hauetan ezarritako **baldintzak betetzen dituzten jarduerak aurkezten dituzten erakunde parte hartzaile guztiek** aintzatespena jasoko dute, **herritarrak sentsibilizatzen eta mobilizatzen laguntzeagatik**. Gainera, sariak emango zaizkie aurkeztutako hautagaitzen artean definitutako kategoria bakoitzeko ekimen onenei.

2. PARTE HARTZAILEAK

Euskadin ekintza klimatikoari eta trantsizio energetikoari lotutako ekimenak garatzen dituzten eragile guztiei zuzenduta dago deialdia.

Bereziki, toki erakundeek, ikastetxe eta lanbide heziketako zentroek, unibertsitateek, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) eragileek, gobernuz kanpoko erakundeek (GKE) eta herritarrak sentsibilizatzeko eta mobilizatzeko konpromisoa duten beste eragile sozial edo ekonomiko publiko edo pribatu batzuek parte har dezakete.

Euskal Autonomia Erkidegoko **toki erakunde publikotzat** hauek hartzen dira:

- Toki erakundeak, halakotzat hartuta, udalerriez, kontzejuez eta udalerria baino eremu txikiagoko beste edozein toki erakundeez gainera, baita udalerrri mankomunitateak, Arabako lurralde historikoko kuadrillak eta eskualdeak, eta tokiko sektore publikoko nortasun juridiko propioa duten erakundeak ere.
- Tokiko merkataritza sozietateak eta tokiko fundazio publikoak.
- Tokiko Garapen Agentziak, batez ere bitartekaritza eta garapen ekonomikoa sustatzeko eta laguntzeko zereginetan aritzen direnak.
- Tokiko erakunde autonomoak, tokiko enpresa erakunde publikoak eta partzuergoak.

3. KATEGORIAK

Toki erakundeentzat, hiru kategoria hauek ezartzen dira:

- » 20.000 biztanletik gorako udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena
- » 5.000 edo 20.000 biztanle arteko udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena
- » 5.000 biztanletik beherako udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena

Gainerako eragileentzat hiru kategoria ezartzen dira, mota bakoitzeko bat:

- » **Ikastetxeen eta lanbide heziketako** zentroen ekimenik onena
- » **Gobernuz kanpoko erakundeetako** ekimenik onena
- » **Beste eragile sozial edo ekonomiko batzuetan –unibertsitateak eta ZTBESko eragileak barne–** egindako ekimenik onena

Kategoria	Saria
20.000 biztanletik gorako udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	1
5.000 edo 20.000 biztanle arteko udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	1
5.000 biztanletik beherako udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	1
Ikastetxeen eta lanbide heziketako zentroen ekimenik onena	1
Gobernuz kanpoko erakundeetako ekimenik onena	1
Beste eragile sozial edo ekonomiko batzuetan egindako ekimenik onena	1
Guztira	6

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta balidatzen diren ekimen guztiak ASTEKLIMA 2026ren esparruan aintzatetsiko dira. Horien artean, epaimahaiak kategoria bakoitzeko ekimen onenak aukeratuko ditu, eta dagozkien sariak jasoko dituzte.

4. JARDUEREN TIPOLOGIA

ASTEKLIMA 2026ren esparruan (urriaren 16tik 25era) klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan egindako herritarren sentsibilizazio eta erantzunkidetasun jarduerak aintzatetsiko dira.

Bereziki baloratuko dira hainbat formatutatik (tailerrak, esperientzia parte hartzaileak, kanpainak, hezkuntza jarduerak, ekintza komunitarioak edo proposamen sortzaileak) herritarrak aktibatzen eta gizarte jasangarriago baterantz jokabide aldaketak sustatzen laguntzen duten ekimenak.

5. BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearen helburuekin **bat etortzea** (20 puntu gehienez).
2. **Berrikuntza eta sormena.** Ekintza eta erabilitako metodologia berritzaileak diren baloratu nahi da, eta sormena baloratuko da (20 puntu gehienez).
3. **Parte hartzea.** Beste sektore, erakunde eta herritar batzuekin lankidetzan aritzea baloratuko da, baita herritarrek ekintzan laguntzea eta parte hartzea ere (30 puntu gehienez).
4. **Inpaktua.** Ekimenak aldaketa klimatikoari eta trantsizio energetikoari aurre egiteko herritarrak sentsibilizatzeko, inplikatzeko eta mobilizatzeko duen gaitasuna baloratuko da, bai eta parte hartzaileen ezagutza, jarrera edo portaeretan aldaketa iraunkorrak eragiteko duen ahalmena ere. Era berean, kontuan hartuko dira ekintzaren irismena, lortutako emaitzen kalitatea eta parte hartzaileek egindako balorazioa (20 puntu gehienez).

5. **Erreplikagarritasuna.** Ekimenak beste udalerri, erakunde, ikastetxe, erakunde edo antzeko testuinguruetan erreproduzitzeko edo egokitzeko duen ahalmena baloratuko da, eskalagarritasuna eta efektu biderkatzailea errazteko. Kontuan hartuko dira erabilitako metodologiaren argitasuna, material edo baliabide transferigarrien erabilgarritasuna, horien erreprodukzioaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, eta beste ingurune batzuetan ezartzeko ebidentzia edo proposamen zehatzak (10 puntu gehienez).

6. EPAIMAHAIA

Ekimen onenei epaimahai batek osatutako prozesu baten bidez esleituko zaizkie sariak, deialdiaren baldintzak betetzeagatik alde aurretik aintzatetsitako hautagaitzen artean.

Komunikazioan, herritarren parte hartzean eta ingurumen hezkuntzan adituak diren pertsonen presentzia eta profil aniztasuna bermatuko da.

Epaimahaia parekidea izango da, eta Energiaren Euskal Erakundeko (EEE) zuzendaritza eta Ihobe ingurumen jarduketarako sozietate publikoa izango dira buru. Horiez gainera, lhobek eta EEEK izendatutako hiru pertsonak ere osatuko dute epaimahaia; tokiko jasangarritasunean, kliman eta trantsizio energetikoan eta herritarren sentsibilizazioan adituak izango dira. lhobek beste pertsona bat ere izendatuko du, hitzarekin baina botorik gabe, epaimahaiaren idazkaritza tekniko gisa jardungo duena. Epaimahaia zein adituk osatzen duten informazio publikoa izango da.

Epaimahaiko kide bakoitzak kategoria bakoitzeko sariak esleitzeko botoa izango du.

Epaimahaiak sariak osorik edo partzialki esleitu gabe utzi ahal izango ditu. Epaimahaiaren erabakia behin betikoa izango da, eta oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera hartuko da.

7. DOKUMENTAZIOA ETA EPEAK

a) Hautagaitzak pertsona juridiko publiko edo pribatuak aurkeztu ahal izango dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza dutenek, eta baldintza hauek betetzen dituztenek:

- 2026a baino lehen legez eratuta egotea.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoa lortzea eragozten duen debekuren bat edo zigor administratibo edo penalen bat duten erakundeek ezin izango dute saririk eskuratu, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoa barne.

Proposamenek hau bete beharko dute:

- Herritarrei zuzenduta egotea.
- Doakoak izatea.

- Proposamenaren gaia ekintza klimatikoari eta trantsizio energetikoari buruzkoa izatea.
- ASTEKLIMAREN denbora esparruaren barruan egitea (2026ko urriaren 16tik 25era).
- ASTEKLIMAREN logotipoa sartzea (webgunean eskuragarri) ekintzaren zabalkundea egiteko materialean.

Aintzatespen horietan parte hartu nahi duten erakundeek beren hautagaitza aurkeztu beharko dute www.asteklima.eus webgunean eskuragarri dagoen inprimaki digitalaren bidez.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.

Hautagaitza bakoitzak dokumentazio hau aurkeztu behar du:

- Hautagaitzaren inprimakia (ekintza bakoitzeko inprimaki bat bete beharko da).
- Proposatutako ekintza bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena.

Kasu guztietan, hautagaitzak lhobek ebaluatuko ditu lehenik, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko. Zehaztutako irizpideak betetzen dituzten hautagaitzak www.asteklima.eus webgunean argitaratuko dira, eta ASTEKLIMA 2026 ekimenari egindako ekarpenagatik aintzatespena jasoko dute.

Epeak:

Ekimena egindakoan, gutxieneko baldintzak betetzen dituzten eta sariak jaso nahi dituzten hautagaitzek Jarduera Memoria aurkeztu beharko dute azaroaren 13a baino lehen. Memoriaren edukiak elementu hauek jasoko ditu:

- Jardueraren izenburua
- Jarduera egiteko lekua eta data
- Erakunde antolatzailea
- Erakunde laguntzaileak
- Parte hartzaile kopurua
- Jardueraren tipologia:
 - A. Hitzaldiak, jardunaldiak
 - B. Tailerrak, erakusketak
 - C. Ipuin kontaketa
 - D. Zinema
 - E. Antzerkia
 - F. Bideo, argazki eta abarren lehiaketa
 - G. Bisitak, irteerak eta ibilaldiak
 - H. Beste jarduera batzuk
- Jardueraren deskribapena
- Jarduerak ASTEKLIMARI egindako ekarpena. Balorazio irizpideen justifikazioa:
 - A. Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearen helburuekin bat etortzea.
 - B. Berrikuntza

C. Parte hartzea

D. Inpaktua

Dokumentazio gehigarria, argazkiak, etab.

Sariak EEEK eta lhobek antolatutako ekitaldi publiko batean banatuko dira. Han, hautatutako ekimenak ezagutaraziko dira, eta parte hartzen duten erakundeek egindako lanari balioa emango zaio.

Epaimahaiaren erabakiaren osteko asteetan egingo da ekitaldia. Datoren berri www.asteklimateus webgunean emango da.

Saritutako erakundeek sarien banaketa ekitaldian **parte hartu beharko** dute.

Deialdi honetara aurkezteak bere oinarriak eta ebazpena onartzea –apelaezina izango da– eta edozein motatako erreklamazioari uko egitea dakar.

8. AINTZATESPENEN EBAZPENA, PUBLIZITATEA ETA BANAKETA

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera hautagaitzak baliozkotu zaizkien erakunde guztiek aintzatespena jasoko dute ASTEKLIMA 2026ren esparruan.

Gainera, epaimahaiak kategoria bakoitzeko ekimen onenak aukeratuko ditu, eta sari hauek emango zaizkie:

KATEGORIA	SARIA
20.000 biztanletik gorako udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	Esperientzia edo aintzatespen baliokidea (*)
5.000 edo 20.000 biztanle arteko udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	Esperientzia edo aintzatespen baliokidea (*)
5.000 biztanletik beherako udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	Esperientzia edo aintzatespen baliokidea (*)
Ikastetxeen eta lanbide heziketako zentroen ekimenik onena	1.000 € (**)
Gobernuz kanpoko erakundeetako ekimenik onena	1.000 € (**)
Beste eragile sozial edo ekonomiko batzuetan egindako ekimenik onena	Esperientzia edo aintzatespen baliokidea (*)

Zenbateko ekonomikoa emateko, dokumentazio hau entregatu beharko da:

- Hautagaitza inprimakia eta ekintzaren erantzukizunpeko adierazpena.
- Egindako jardueraren memoria, definitutako web formatuan atal guztiak beteta.
- Aukeran: material gehigarria; argazkiak, kartelak, bideoak...

(*) Saria esperientzia batez gozatzeko aukera izango da, edo balio baliokidea duen beste zerbait. Dena delakoa banaketa ekitaldia baino lehen zehaztuko da.

(**) Kopuru garbiak

9. ERREPRODUKZIO ESKUBIDEAK ETA JABETZA INTELEKTUALA

Salbuespen gisa eta behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, Ihobek beretzat gordetzen du oinarriak aldatzeko eskubidea, edukia argitzeko edo zehazteko soilik, eta horrek ezin du ekarri edukia funtsean edo arbitrarioki aldatzea. Oinarrien testua deialdi hau indarrean dagoen bitartean egongo da eskuragarri webgune honetan: www.asteklima.eus.

Oinarriak onartzeak aurkeztutako ekintzak ASTEKLIMAREN webgunean argitaratzeko baimena ematea dakar, horiek zabaltzeko.

Aurkeztutako ekimenak EEE eta Ihobeko komunikazio kanalen bidez zabaldu ahal izango dira modu mugagabea, jardunbide onak ikusarazteko eta Euskadin ekintza klimatikoa sustatzeko asmoz, betiere erakunde egilea aipatuta.